

**JOXE MARI KORTA SARIEN EMATE EKITALDIA / ENTREGA DE LOS
PREMIOS JOXE MARI KORTA 2015**

2015-11-24-Lehendakaritza-24-11-2015

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Herri agintariok, herri ordezkariok, gizarte ordezkariok, sarituok, Joxe Mari Korta Bidetik Fundazioaren arduradunok guztioi, jaun andreok, arratsaldeon eta ongi etorri. Lehenik eta behin, zorionak Iñaki Alkorta, Jose Luis Larumbe, Manu Galindez eta Pedro Abasolo.

Gaur hemen ordu beteko ekitaldi honetan, zuen urte luzeetako lana eskertu eta onartu nahi izan dugu. Zorionak, beraz, zuei eta zuen lankide guztioi. Joxe Mari Kortaren sendiari gure esker ona. Bere oroimena, balioak eta eredu gogoan, etorkizuna eraikitzen jarraitzen dugu. Elkarrekin jarraituko dugu bide horretan.

Energiaren metafora erabili dugu: “energia ez da ezerezetik sortzen, energia ezin da deuseztatu.” Joxe Mariren energiak iraun egiten du, urtez urteko sari hauetan nabaritzen dugu, etengabe moldatuko da, galdu gabe. Memoria bizia hori da, iragana argitu egiten du eta etorkizuna indartu.

La energía, como se decía en la presentación, se transmite, como también el ejercicio de recordar a las personas que nos alumbran el camino del futuro. Joxe Mari Korta nos legó trabajo, convicción y compromiso. La memoria de su vida y sus valores es un “bien común” de nuestra sociedad. Un bien que compartimos con las personas premiadas y que agradecemos por su trayectoria y ejemplo permanente.

Hoy premiamos a personas de empresa. Premiamos un concepto de empresa que representa la figura de Joxe Mari Korta. Premiamos a Iñaki Alkorta, José Luis Larumbe, Manu Galíndez y Pedro Abasolo. Personas que arriesgan para sacar adelante sus proyectos; que crean, invierten y hacen crecer nuestra sociedad, como todas y todos los empresarios.

Saridunei eskerrak eman nahi dizkiet, euskal gizartearen izenean. Ekonomiaren munduak zailtasunak erakusten jarraitzen duen momentu honetan, zuen ereduak balio handiagoa hartzen du. Krisi garaian eginkizunari eta lanpostuei eustea, inbertsio berriak abiaraztea, merkatu berrietara irekitzea, berrikuntzan sinistea, horrek guztiak meritu berezia erakusten du.

Enpresa da gure gizarte ongizatearen sostengua; zuek zarete, elkarlanaren bidez, enpresa horiek mantentzen dituzuenak, enpresario guztiek bezala. Zuen konfiantzak konfiantza gehiago eragiten du gure gizartean.

Gaur datorren urterako aurrekontuak onartzeko aurreraurratz bat eman dugu. Enpresa batek bezala, Herri batek ere egonkortasuna behar du eta hirugarren urtez aurrekontua onartzeak ezinbestekoa dugun egonkortasun hori bermatzen laguntzen du. Ona da enpresentzat eta ona, zer esanik ez, erakundeentzat, Eusko Jaurlaritzarentzat.

Aurrekontua onartzeak eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitate maila hobetzeko aukera emango digu eta hori da oinarritzko helburua, hemen bertan idatzita dugun bezala azkotan: “persona helburu”, hau da, pertsona guztiei oinarritzko zerbitzuak bermatzea.

Horrekin batera, ekonomia berpizteko beste aurreraurratz bat emateko aukera eskainiko digu aurrekontu horrek. Alde batetik, 1.200 milioi euroko inbertsioa garatuko dugu. Bestetik, berrikuntzan eta enplegua sortzeko programetan ahalegin berezi bat egiteko aukera emango digu.

Aurten euskal ekonomia %2,7 haztea lortu dezakegu. Datorren urterako %2,5eko hazkundera aurreikusi dugu. Badakigu, horrekin batera inbertsioa, kontsumoa eta esportazioak hazi egingo direla. Badakigu, kalitatezko enplegua ere igotzea lortuko dugula. Hori da gure lehentasuna.

La empresa necesita estabilidad y confianza para invertir y crecer. Esta misma filosofía es de aplicación a un País. Hoy hemos dado un paso importante para garantizar la estabilidad presupuestaria el próximo año, y quiero agradecer hoy especialmente el nivel de entendimiento y acuerdo conseguido, que hará posible que la Comunidad Autónoma del País Vasco cuente con presupuesto propio el año 2016. Estabilidad económica, presupuestaria, fiscal y financiera. Esta es la mejor aportación que podemos hacer para garantizar la confianza, la inversión, el crecimiento y la creación de empleo de calidad en Euskadi.

Cuando una empresa afronta una crisis como la que estamos viviendo, “cierra filas” y pone toda su energía en mantener la actividad y el empleo. Esta es hoy también nuestra prioridad. Todas las instituciones públicas compartimos el objetivo de la estabilidad, el objetivo de consolidar los servicios esenciales para la ciudadanía y, junto a ello, contribuir a la reactivación económica.

Hoy entregamos unos premios que reconocen la labor de la empresa vasca. En este acto hemos reconocido diversos principios y valores, termino subrayando uno: colaboración. Trabajando juntos y en equipo sale adelante una empresa. La colaboración y el trabajo conjunto nos va a permitir sacar adelante nuestro País.

Bukatzeko, nire esker ona hurbildu zareten guztioi. Besarkadarik beroena Joxe Mari Kortaren senideei eta zorionak saridunei. Jarraitu dezagun elkarrekin haren energia erabiltzen eta moldatzen gure gizartearen mesedetan.

Eskerrik asko.